

EZ

#01

PAREGABEA

ETA EZTA

ERDIPURDIKOA

ERE:

EDGAR ALLAN POE

ETA *EUREKA*

G. St. John Stott

“Associate Professor of English” eta “Chair of the Department of Modern Languages”

Arab American University, Jenin

Aipatzeko gomendioa || STOTT, G. St. John (2009): “Ez paregabea ezta erdipurdikoa ere: Edgar Allan Poe eta *Eureka*” [artikulu linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 1, 52-64, [Kontsulta data: uu/hh/ee], < <http://www.452f.com/issue1/ neither-genius-nor-funge-edgar-allan-poe-and-eureka/> >.

Ilustrazioa || Violeta Noguera

Itzulpena || Amaia Donés

Artikulu || Jasota: 2009/04/22 | Komite zientifikoak onartuta 2009/05/12 | Argitaratuta: 2009/07/01

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe.



Laburpena || *Eureka* 1848ko otsailean Poek kosmologiari buruz eman zuen ikastaro baten bertsio luzatutzat onartua izan da. Hala ere, obra testu zientifikoa ote den ez dago hain garbi. Poeren beste obra batzuetan ikusi da gaiak lantzerakoan ez zuela koherenziarekiko arretarik jartzen; ondorioz *Eureka* ezin da hartu pentsamendu zientifikoaren emaitza gisa. Iruzur bat dela pentsatu behar da: irakurleen sinesgarritasuna salatzeke saiakera bat. Irakurleei konbentzio orokorrak aurkitzeak eragiten dien sinesgarritasunean datza, hain zuzen, Poeren txantxa. *Eurekak* John Bovee Dods bezalako irakurleen konfiantza erabili eta irrigarri utzi zuen ikuskera kosmologikoa ematen zela uste izan zutelako.

Hitzak || Poe | *Eureka* | Eterra | Mesmerismoa | Iruzurra.

Abstract || *Eureka* (1848) has been taken at face value as an expanded version of a lecture on cosmology that Poe gave earlier the same year. However, its seriousness as a work of science should be questioned. Its treatment of themes found in other works by Poe shows the author's unconcern for consistency, and the text unlikely to have resulted from a serious engagement with scientific argument. Instead it should be approached as a hoax: an attempt to reveal the gullibility of its readers. Poe's hoaxes relied for their effect on the trust created in readers by their recognition of generic conventions, and *Eureka* exploited and ridiculed public trust in cosmological lecturers such as John Bovee Dods.

Keywords || Poe | *Eureka* | Ether | Mesmerism | Hoax.

0. Sarrera

Edgar Alan Poeren Eureka (1848an argitaratua) bi interpretazio izan ditu: kosmologiari buruzko liburu seriotzat ikusi izan da baina, baita ere iruzurtzat¹: “virtuosity in the use of logic, . . . philosophical profundity, [and] currency in scientific theory” (Schaeffer, 1971: 353) ezaugarriak dituen saiakera moduan ulertu da alde batetik, baina bestetik, zientzia eta filosofia txarra eta batere sakona egiten ez duen lan gisa (Holman 1972). Iritzi hauek batera ezinak dira—Harold Frommek kritika ironiko batean azpimarratu zuen bezala: “One man’s genius is another’s fudge” (1989: 201) —; gainera, analisia are gehiago zailtzen du Poek zientzia aurkezteko duen moduak² ezin baita ziurtasun osoz jakin egileak gaia seriotasunez azaltzeko asmoa zuen edo ez. Azken batean, iruzur egin nahi badu ere, hartzailea konbentzitzeko asmoa duten detaileak ageri dira. Poek “Hans Phaall”i (1835) 1939ko argitarapenean gehitutako eranskinean azaldu zuen bezala³, iruzur baten arrakasta ondorengoaren arabera da: “verisimilitude . . . in the application of scientific principles” (1983: 1001). Christopher Norrisek ordea (2000: 94), aipatu du iruzur batek, irakurleak egileak ironiarako asmorik ez duela uste dezan, behar duena dela orokorrean jendeak errez onartzen duen zientzia dosi egokia. Oraingoan argudiatu zitekeen Laplace eta Newton bezalako nahikoa jeinu bazeudela jada inozoak engainatzeko, eta beharrezkoa dena dela frogatzea Poeren asmoa ez zela inoiz izan bera jenio zientifikoa zela erakustea (Anbigutasun bera ikusi daiteke Poek lanaren inprimatutako kopietan idatzitako alboetako komentarioetan: argi dago bere argudioak hobetu zitzakeela bazekiela, baina ez dago argi zergatik egin nahi zuen hori.)

Kontu handiz aztertu behar da ere Poek aipatzen duenean lana zela “not . . . literary at all”—eta bere amaginarrebari esaten dionean ez duela bizitzeko gogo gehiagorik *Eureka* egin zuenetik (Ostrom 1948: 2, 359, 452). Hori ez da geratzen soilik Poe eguneroko ohikerian eroria zelako: “had fallen into a routine of easy lies and half truths since at least his adolescence” (Silverman, 1991: 146); nahiz eta susmorako arrazoi handirik ez dagoen eta Poeren hitzak seriotasunez har daitezkeen, uste dezakegu *Eurekaren* kasuan iruzur bat egitea zela asmoa. Poek bazuen jada ikasia garaiz aurretik esanez gero zein ziren benetako asmoak finantziario arazoak izan zitzakeela—Atlantikoa globoz gurutzatzeari buruz artikulua bat idatzi zuela onartu zuenean bezala (Goodman, 2008: 244)—1848an Poek egin bezala. Poeren zientziari dagokionez, nahiz eta bere lanak seriotasunez har daitezkeen, ez dago zergatik.

OHARRAK

1 | Epes Sargentek iradoki zuen lehengo aldiz *Eureka* iruzurra zela, Boston *Transcriptean* honakoa esan zuenean: ‘The mocking smile of the hoaxer is seen behind [the author’s] grave mask’ (Walker, 1986: 292, 281; cf. Beaver, 1976).

2 | Poek bere ipuinekin zuen asmoa zen istorioek “conform to current scientific ideas, as he understood them” (Mabbott, 2000: 94); XIX mendeko Baconen kritikak ezagutzeko, (Poeren kontrolerako kezka) (Hesse 1964: 149).

3 | Istorioak kontatzen du nola Rotterdameko gizon batek (Hans Phaallek) globo bat eraikitzen duen eta ilargira bidaiatzen duen bere hartzekodunengandik ihes egiteko.

1. Testuinguruak

Poek jarraitu zituen irizpideei buruzko zalantzak ezabatzeko (irakurketa kosmologikoa zein iruzurra), interesgarria da *Eureka* antzeko gaiak lantzen dituzten bere beste obra batzuekin batera irakurtzea⁴—batez ere 1844ko mesmerismoari buruzko istorioa, “Mesmeric Revelation.” Ipuin hau askotan hartua izan da beranduago argitaratuko zuen ipuinaren entsegu gisa (Matthew A. Taylorrek azpimarratzen duen bezala), biek egiten dutelako “‘our’ death—the death of the individual, the death of the human—a precondition of full transcendence” (Taylor, 2007: 204; cf. O’Donnell 1962: 87; Falk 1969: 546), eta bat irakurri ostean, bere seriotasunak (edo seriotasun ezak) bestearen irakurketan eragina izango lukeelako.

1.1 Mesmerismoa

Poek mesmerismori buruzko hiru ipuin argitaratu zituen 1844-1845ean: “A Tale of the Ragged Mountains,” “Mesmeric Revelation,” eta ezagunena den “The Facts in the Case of M. Valdemar”; ipuin hauek mesmerismoak bizitzaren eta heriotzaren arteko muga gurutzatzeko duen indarra agerian uzten dute. Lehenengoan, Templetonek Bedloerengan duen kontrolak eragiten azkenak muga hori pasatzea trantze mesmeriko batean sartuta dagoela, berrogeita hamar urte lehenago Tepletonen lagun Oldeb Benares hil egin zen modu berean hitzen delarik; bigarrenean, narratzailea eta Vankirken arteko elkarrizketa bigarrenaren heriotzarekin amaitzen du Poek; eta azkenekoan, Poeren kontrol mesmerikoak Valdemarren bizitza luzatzen du. Beste baten heriotzari buruzko norbaiten esperientzia (mesmerikoa) norbait horren heriotza ulertzeko bide bihurtzen da; ez bada heriotzatik aldentzeko modu bat. Hala ere, Poeren seriotasun hau ez genuke ikusi behar filosofia sendo baten garapenaren emaitza bezala, ez baitzen hori bere asmoa—bere irakurketek novari buruz iradokitzen dutena argia da.

1844an Poek Chauncy Hare Townshenden *Facts of Mesmerism* irakurri zuen eta bertan azaltzen ziren kontzeptuetan istorioak kontatzeko ideiak ikusi zituen. Townshend bezalako egileentzat frogatua zegoen: “the magnetizer may act upon [the one magnetized] at a distance”; eta hori egiteak kezka sortzen zuen: “give rise to mischievous results” (Townshend, 1840: 365; cf. Deleuze, 1884: 208; Lind, 1947: 1082). Lindek duela zenbait urte azpimarratu zuen egoera hau “A Tale of the Ragged Mountains”eko egoera zela. Bestalde, Townshenden (egia esan, mesmerismoari buruzko garaiko testu gehienetan) ikusi zena izan zen mesmerizatutakoek batak bestearekin hitz egin zezaketela autoritatez esnatzen direnean ezjakin direla uste duten gaiei buruz (lehenago aldiz Marquis de Puységurrek erakutsi zuen hau)⁵. Horixe bera, hain zuzen, aurki dezakegu “Mesmeric

OHARRAK

4 | Levinek eta Levinek diote hau *Eurekari* egindako hitzaurrean (2004).

5 | Ikus Walmesley, 1967: 144; Laurens, 2008. 1844an izan zuen interesa Harriet Martinearen “Letters on Mesmerism”, *Athenæumen*, zabaldutako polemikan ikusi daiteke. Bere neskamea, Jane Arrowsmith, igarlea zela esaten zuen lan horretan (Pichanick, 1980: 129-37).

Revelation”en —iradokitzen den beste gauza bat da mesmerismoak heriotza azkartu zezakeela tuberkulosi kasuetan.—“In pulmonary phthisis in the last stages”, J. F. Deleuzek agerian utzi zuen sendatu baino, “it is . . . to be feared that . . . it accelerates the final crisis” (1884: 183, 333)—“The Facts in the Case of M. Valdemar”en: ez du bakarrik azaltzen gorpu batean zein den erreakzio elektriko baten eragina⁶, baizik eta baita ere hitz egiten du garaian ardura pizten zuen zerbaiti buruz: “that mesmerism could redraw the line between life and death” (Winter, 1998: 121). Justinus Kernerrek esana da bere *Die Seherin von Prevorsten* (1829) emakume baten bizitza mesmerismoari esker mantendu zela bizirik modu artifizialean (Lind, 1947: 1092; Taves, 1999: 393-94n60). Bestalde, Andrew Jackson Davisek antzeko istorio bat kontatu zuen (Smith 1845, 25). Poek ezer gutxi gehitu zien lan hauei kontrol literarioaz gain.

Poek lan hauetatik ideiak hartzen dituenean ez du modu sistematikoan egiten, eta ez ginateke harritu behar horregatik. Azken batean, kazetaria zen (1844an ahal zuen moduan bizi zen New Yorken). “In my ‘Valdemar Case,’” kexatzen zen, “. . . I had not the slightest idea that any person should credit it as anything more than a ‘magazine-paper’” (Ostrom, 1948: 2-433), eta nahiz eta ez dakigun berak ba ote zekien bere irakurleek ipuina seriooki hartuko zuten edo ez, ez dugu arrazoirik pentsatzeko Poek aldizkari batean argitaratzeko fikzioa baino askoz hobea zen zerbait bezala ikusten ote zuen bere lana⁷. Beste ipuin batzuei buruz gauza bera esan beharko litzateke, ondo garatu zituztelako ideiak, baina askoz urrunago joan ahal zirelako; horregatik galdetzen diot nire buruari zergatik izan behar ote zen *Eurekak* desberdina. Noski, ez genuke konfiantza gehiegi jarri beharko “Mesmeric Revelation”ekin dituen antzekotasunetan (*jeu d’esprit*, zein iruzurra baldin badago honetan, zergatik ez bestean?)—izan ere, bi lanen arteko desberdintasunak antzekotasunak baino garrantzitsuagoak dira. “Mesmeric Revelation”en norbanakoek egiten diote aurre heriotzari, *Eureka*n ez; eta ez dago arrazoirik uste izateko Poek testuinguru bat nahiago zuela bestea baino, edota sinisten zuela “The Colloquy of Monos and Una”n (1841) iradokitzen duen horretan: kontzientziak heriotzari ihes egiten badio ere, bakarrik denbora eta tokiaz konturatzearen ondorio dela.

1.2 Argi eterra

Eureka irakurtzeko gida lerroak ematean, ezin da aipatu gabe utzi Poek ez zuela jarrera finkoa izan eterrari dagokionez. Zentzu handi batean, espero genezakeen jokabidea da, batez ere kontutan hartuta garaiko zientzian “eter” kontzeptuari ematen zitzaion erabilera. Argiaren teorian lanean ari zirenek luzaroan uste izan zuten argi uhinak garatzeko bitarteko bat bazegoela, eta bitartekoa (argi eterra) unibertsoan zegoela. —Thomas Thompson zientzia

OHARRAK

6 | Gai esperimental batek eragin dezake “make violent gesticulations with his hands, move his head, roll his eyes, and chatter his teeth”, eta ez gintuzke harritu behar, Poeren istorioan bezala, fenomenoak ezagutzen ez dutenek eskenatik alde egin edo konortea galdu izan dutela (Dods, 1847: 23-24; Poe, 1983: 840).

7 | Poek “Hans Phaal” deskribatzerakoan antzeko termino anbiguoak erabili zituen, bai “iruzurra” zein irakurleei txantxa egin zezakeen “jeu d’esprit” .

dibulgetzailearen hitzetan, eterra zen “a peculiar matter, extremely subtle, capable of penetrating the densest bodies, astonishingly elastic, and the cause of heat, light, magnetism, electricity, and even of gravitation” (Thomson, 1830: 4). Hala ere, ez zegoen adostasunik eterraren inguruan, eta XIX mendearen erdialderako zalantzan jartzen zen benetakoa zen edo ez, ezin izan baitzuten inolako eterrik aurkitu planeten mugimendua aztertzean. Thomas William Webben azalpena honakoa da: “only assumed for the sake of the theory” eta, beraz, “need not be further noticed”. 1883an (5n; cf. Campbell and Garnett, 1882: 394) esan zuen agian lehenago emana zela. Izan ere, XIX mendearen erdialderako “eter”ek portmanteau hitz bezala funtzionatzen zuen dagoeneko—teoria batek beharrezko zuen definizioa har zezakeen hitz bat.

Espero ez genuena, ordea, da Poek terminoa hain modu zabalean erabiltzea. “Mesmeric Revelation”en Vankirkek iragartzen du “God, with all the powers attributed to spirit, is but the perfection of matter.” Eta: “The ultimate or unparticled matter not only permeates all things but impels all things—and thus *is* all things within itself. This matter is God” (Poe, 1983: 722, 720). Ez genuke pentsatu behar Poek horrelakoak seriooki hartzen zituenik. Vankirk mesmerismoaren eraginaren pean zegoen halakoak esatean, eta gainera, kontutan hartu behar da aldarrikapen hauek ez direla garaiko ideia teologikoen isla baino. Mende erdialdeko Estatu Batuetan nahiko onartua zegoen, Thomas Dicken hitzetan, Jainkoak “pervades, actuates, and supports the whole frame of universal nature” (1846, 1: 65), eta batzuek Jainkoaren nonahikotasuna eterrarekin konparatu zezaketen⁸. Beste batzuek ordea, Poeren terminologiaren aurrekari gisa, elektrizitatearekin erlazionatuko lukete (edo eterra elektrizitate gisa ikusiko lukete). “I am fully sensible,” idatzi zuen mesmerismoaren aldeko batek, “that electricity is a fluid most inconceivably subtle, purified, and fine. . . . It is almost unparticled matter. . . .” (Dods, 1853: 107; cf. Milutis, 2006: xi). Eterra “partikularik gabeko gai” moduan ikusten duen ikusmoldeetik hartu zituen ideiak Poek “Mesmeric Revelation” egiteko, eta horregatik ematen du obra hain eguneratua dagoela; hala ere, honek ez zuen esan nahi Poek seriooki hartzen zituenik bere hitzak. Bi hilabete lehenago, “The Power of Words”en (1845), eterra beste modu batean definitu zuen, sustantzia bezala, zeina “pervades, and alone pervades all space” eta “medium of creation” baiten (Poe, 1983: 1825)⁹, eta Eureka beste modu batean definitu zuen berriro¹⁰. Beranduagoko lan batean Poek eterra sartzen du adierazteko “sustantzia” Jainkoa izendatzeko beste modu bat dela, edo “Jainkoa” “sustantziaren” beste izen bat. Beste behin, ideia hau interesgarria da. Izan ere, unibertsoaren ikusmolde zehatz batek izan zuen eragina materialismo kristauan bi mende baino gehiagotan¹¹. Baina ez dago hain argi obra honek aurrekoek baino argiago erakusten dutenik Poeren sinismena zein zen.

OHARRAK

8 | Edward Hitchcockek 1851an esan zuen Jainkoaren presentziari buruz “transmitted by means of the luminiferous ether to the limits of the universe” (1854: 433). Antzeko argudioak aurkitu daitezke erlijio desberdinetan, Metodistotik Mormonismora: ikus adibidez, Porterfield, 2005: 164; Whittaker, 1991: 199; eta, ikerketa orokorretarako, Cantor, 1981; Mills, 2006: 67-93.

9 | Jainkoak benetan hitz egingo balio —edo pentsatu— unibertsoari denboraren hasieratik, orduan bere hitza transmititzeko bitarteko bat egon beharko zen; eta bitarteko hau baldin bazegoen, Jainkoaren kreazioak gizakien adierazpenetan ere paralelo bat izan beharko zukeen. Bruce Millen laburpenean (2006: 71), “the thoughts of God permeate and impel all things, and similarly human words and thoughts pulse outward from the self.”

10 | Hala ere, ni ez nago ados Eureka tematikoki, estetikoki eta teorikoki konsistentzia duela Poeren beste lanekin esaten dutenekin: horretarako, ikus Jacobs, 1969.

11 | Era berean, ez da originala ezta ere esatea hodei kondentsazioak eragin zuela unibertsoaren hasiera. “Space and duration exist of necessity, and that space was eternally filled with primal matter which I contend is electricity”, John Bovee Dodsek azaldu zuen. Unibertsoan dagoen guztia elektrizitateetik kondentsatu da, “not instantly but gradually”, gehitu zuen (1847: 36, 40). Mary Somervillek, Laplaceren ideiei sarrera bat eginez ingeles hitzun batzuentzat, ez zuen hain jarrera dogmatikoa hartu. Orokorrean, adierazi zuen, “a self-luminous, phosphorescent material substance, in a highly dilated or gaseous state,” zegoela, aldatzen joaten zen

2. Helburuak

Zergatik idazten zuen, orduan, Poek? Ez bazuen zientzialari edota zientzia dibulgatzailearen irudia eman nahi bere irakurleen aurrean (bere ideiak gehiegi aldatzen dira, eta ondorioz ezin dugu dibulgatzailezat hartu), orduan serio hartu behar ditugu bere obrak eta sinistu *Eureka* poema bezala aurkeztu nahi zuela—eta onartu, Sir Philip Sidneyk egin bezala (Aristotelesen antzera), poesiak ez du zerikusirik egunerokotasunarekin. Beraz, Poeren poema kosmologikoa “gezur” bat izango balitz bezala irakurtzea da nire iradokizuna, non bere asmoa zen harrapatzea “the attention (and ideally the imagination) of the public” (Boese, 2002: 2; Poe, 1983: 608)—bai eragin poetikoa sortzeko, zein iruzur egiteko (ziurrenik azken hau izan zen arrazoia, kontutan hartuta oso aberatsa dela detaile zientifikoei dagokionez).

Noski, ironiaz hitz egin genezake dezepzioaz baino. Poek idatzi zuen gehiena, G. R. Thomposonek esandakoaren arabera “qualified by, indeed controlled by, a prevailing duplicity or irony in which the artist presents us with slyly insinuated mockery of both ourselves as readers and himself as writer” zen. Esaldi honek *Eureka* ulertzeko klabe asko ematen ditu, eta gainera, oinarritzat hartuz gero, ez genuke esan beharko dezepzioa zela Poek bilatzen zuena (1973: 9; cf. Dayan, 1987: 23; Jar’ab, 2003). Hala ere, Poe iruzurti bat zen: irakurleei barre egiten zien eta honela definitzen zituen: “believers in every thing Odd”, zeintzuen “Credulity:—let us call it Insanity at once”, eta “ignorant people” gisa ditu (“Fifty Suggestions”, 1849, no. 28, in Poe 1984: 1303). Burton R. Pollinek esan zuen Poeren iruzurren azpian bazegoela “the sheer exuberant humour of his inventiveness” (1970: 174), baina, Poeren hitzak kontutan hartuta, Constance Rourkeren lehenagoko ikuspuntuak gehiago konbentzitzen gaitu. Izan ere, bere ustetan Poeren iruzurren helburua “was to render his readers absurd, to reduce them to an involuntary imbecility” (1959: 181-84; cf. Walsh, 2006: 116; Elmor, 1995: 187).

2.1 Generoari buruzko itzaropenak

Poeren iruzurretan esanguratsuen dena da existitzen ziren generoak erabili zituela irakurleen itzaropenak pizteko (Burgoyne, 2001). Poek iruzurra kazetaritzan ere erabili zuen. “*The Atlantic has been actually crossed in a Balloon!*” aldarrikatu zuen New Yorkeko *Sunaren* gehigarri batean 1844ko apirilaren 13an, “and this too without difficulty—without any great apparent danger—with thorough control of the machine—and in the inconceivably brief period of seventy-five hours from shore to shore” (Poe, 1983: 743; Goodman, 2008: 238-45). Horrelakoak aurrera eramateko, beharrezkoa zen, alde batetik, bere irakurleek garaiko teknologiaren aurrerapenei buruz gutxi jakitea (eta

OHARRAK

sustantzia bat “by the mutual gravitation of its particles” eta izar eta galaxia bihurtzen zituena, baina teleskopio onagoak beharko ziren hodeien teoria egiazkotzat hartzeko (1831: lxvi). Hala ere, *Eureka* argitaratu eta hamazazpi urtetara, Jules Vernek hodei kondentsazioaren teoria erabili zuen bere *De la Terre à la Lune* (1978: 74-75). Eskenaren Poeren bertsioak iradokitzen du uste pertsonal batek bultzatua idatzi zuela.

beraz sinistea ozeano Atlantikoa globo batek zeharka zezakeela)¹²; bestalde, beharrezkoa zen jendeak konfiantza izatea egunkarietan. Jakitunagoak izan behar izan zuten. Hamarkada bat lehenago ilargiarekin geratutako iruzurra gogoratzea ez zen beharrezkoa izan behar konturatzeko egunkarietan agertzen den guztia ez dela zertan sinistu behar. Estatu Batuetako prentsa erabat sentsazionalista zen eta maiz argitaratzen zituen “an unlimited promotion of merchandise” (Lehuu, 2000: 37). Hala, sentsazionalismoarekiko jendeak zuen gosea izan zen—ezagutza zientifikorik eza baino- iruzurra posible izatea eragin zuen faktorea. —Harriet Martineauk azpimarratu zuen hamarkada bat lehenago, hezkuntza orokorrari dagokionez estatubatuarrak ari zirela “travelling far faster than any other people beyond the reach of [a hoax’s] deception” (1838, 3: 24).

Poek *Sunerako* idatzi zuen artikulua ez zen bakarrik irakurleak irrigarri sentiarazteko egin zuen generoaren esplotazio bikain bat. Ikusi dugun bezala, globoari buruzko iruzurra argitaratu eta hilabete batzuetara bere irakurleei sonambulo baten errebelazio bikaina eskaini zien. Mesmerismoaren ikasle kontserbatzaileenek abisatu zuten ezen “God has revealed what it behoves us to know”—“if we make [somnambulists] reason about mysteries, their imagination will be exalted, and they will give in to all sorts of errors” (Deleuze, 1884: 249). “Arima gorputzari lotuta dagoen bitartean”, unibertsalista alemaniar Johann Heinrich Jung-Stillingek idatzi zuen: “the connection [between the soul and the spiritual world] is not perfect” (“The Nature of Man,” *The Magnet* 1, December, 1842: 158-59; qtd. Taves, 1999: 140n61). Hala eta guztiz ere, jendeak uste zuen sonambuloek beti egia esaten zutena, eta Poek, nahita, errebelazio mesmeriko bat egin zuen, nahiz eta bere testuak ez zuen ezertxo ere ez errebelatzen.

Beste behin: Vankirken errebelazioarekin jendeari barre egin baino, Poek irakurleen itxaropenetan eragin nahi zuen “The Man of the Crowd” (1840) bezalako istorioekin, non sinistarazten digun ipuinak hirian zehar eramango gaituela (Whitmanek gauza bera egin zuen 1842an “Life in a New York Market”ekin —Rubin and Brown 1950, 20-22), guri begiak irekiaraziz. Walter Benjaminek azpimarratu bezala, “The Man of the Crowd is no *flâneur*” (1968, 174). Eta hori da *Eureka*, Poek irakurketa kosmologikoari barre egiten dion lana. (Gogoratu behar da, lehenengoz aurkeztu zuenean “On The Cosmography of the Universe” izenarekin egin zuela New Yorken 1848ko ostailaren 3an)¹³.

OHARRAK

12 | Positiboegia zen: Atlantikoa hegazkinez lehengo aldiz 1919an gurutzatu zen.

13 | Iruzur egiteko kosmologiaren gaia erabiltzea Oliver Goldsmithen *The Vicar of Wakefield*en erabili zen (1766).

2.2 John Bovee Dods

Mendeerdialde inguruko estatubatuarrek kosmologiarekiko miresmen handia zuten, baina argitaratutako lan guztietatik, azpimarratu nahiko nituzke John Bovee Dodsena. Nahiz eta ez dagoen probarik bi gizonen artean loturak egiteko, Dods Poek besteei erakustea gustuko zuen iruzurti horietako bat zen. 1843an, sei arratsaldetan jarraian, Dodsek Bostoneko berrehun bat ikusle baino gehiagoren arreta erakarri zuen kosmosari buruz eman zituen hitzaldietan, eta garaiko kroniken arabera, “jendetza” handi bat entzutera sartzeko tokirik gabe ere geratu zen. Hala ere, ez zuen jende guztia harritu. *Boston Medical and Surgical Journal*ek sentitu zuen hiriaren ohorearen aurka egin zuela Dodsena ikuskizunak (Whorton, 2004: 112); eta nire uztez Poe bat zetorren horrekin. Horregatik hartu zuen Poek kosmologia bere iruzurren jomuga zuzen bezala.

Dods ez zen bakarra unibertsoari buruz era honetako ikuskizunak ematen. Poek bazekien Andrew Jackson Davis (“Ploughkeepsie Seer” izenez ezagutua, Ploughkeepsieko igarlea) ere arrakastatsua zela, eta ber irakurraldiak *The Principles of Nature, Her Divine Revelations, eta A Voice to Mankind* (1847), trantze egoeran idatziak izan ziren (Tatar 1978, 194). Poek Davisengan interes handia zuen eta 1846ko urtarrilean deitu egin zion (Davis, 1871: 317); bazekien biktima on bat zuela bera. “IN THE BEGINNING,” azaldu zuen Davisek, “the Univercoelum was one boundless, undefinable, and unimaginable ocean of LIQUID FIRE! . . . It was without parts; for it was a Whole. Particles did not exist; but the Whole was as one Particle” (1852: 121). Gerta daiteke *Eureka* era horretako nahikeriak irigarri egiteko idatzia izan izana; gainera, nahita edo ez, gainditu egin zituen (“altogether irresistible, although inexpressible”), “that what God originally created—that that Matter which, by dint of His Volition, He first made from His Spirit, or from Nihilicity, could have been nothing but Matter in its utmost conceivable state of—what?—of Simplicity” (Levine and Levine, 2004: 22; cf. 102-03). Hala ere, Dods da batez ere Poeren kritiken helburu zuzena kosmologiari buruzko ironia egin zuenean¹⁴. Erretorikan antzekotasunak daude; elektrizitatea—edo antzeko zerbait—unibertsoaren hasierako printzipioa denaren ustea dago (Levine and Levine, 2004: 27; Dods, 1847: 78). Eta, garrantzitsuena dena, poesiari dagokionez antzekoak diren elizgizon ohia eta bera, Poek Dodsena irakurketetan aurkitzen dugun gizona hankaz gora uzten du. Giza hilezkortasuna onartu baino, Dodsek ez bezala, Poek azpimarratzen duena iheskortasuna—Jainkoari buruzko diskurtsoan tokirik ez duena.

Dods kontserbatzailea zen etorkizuna ikusteko moduan. “[W]hen we lie down upon the bed of death, and the embers of life feebly glimmer in the socket of existence,” azaldu zuen, “then the Gospel of Christ

OHARRAK

14 | Ziurrenik Poek bazekin Dodsek hiru mila kopia saldu zituela hilabete batean.

points us to brighter scenes—scenes beyond the tomb.” Aurrerago begiratu genezake eta berpizte orokorrigo baten esperoan egon, noiz Jainkoaren “dread voice shall speak with a living energy, that the very heavens shall hear, and the dead shall rise to die no more, and turn their eyes from the dark, ruinable tomb on the scenes of eternity!” (Dods, 1847: 64, 76). Poeren ikuspuntua erabat desberdina zen. Ez zuen norbanakoa kontutan hartzen, baizik eta arraza, eta etorkizuna aurrejartzen zuen: “Man . . . ceasing imperceptibly to feel himself Man, will at length attain that awfully triumphant epoch when he shall recognize his existence as that of Jehovah” (Levine and Levine, 2004: 106). Noski, nork bere burua Jehovahtzat hartzea norbera norbanako bezala ez ikustea da (E. A. Poe bezala, adibidez). Poek garaiko baikortasun eta antropozentrismoari erronka bota zien modu honetan, eta esanahiari garrantzia kendu zion (Taylor, 2007: 204).

Poek, nire uztez, nahita egin zuen. Askok, Patrick F. Quinnek bezala, *Eureka* “unintentional poem of death” bezala ikusi dute (1963: 4-7); nik, ordea, uste dut deuseztapenari buruz duen ikuspuntua ez duela nahigabe azaltzen modu horretan obran, horregatik, Eureka lan probokatzailatzat hartuko nuke. Liburuak gizadiari buruz duen ikuspuntua euren dignitatea eta bizitzaren zentzua lana irakurtzean aurkitzen duten horien aurka egindako broma gogor bat da, hots, Dods eta Davisen bezalako pertsonen aurka; baina, besterik gabe, Poeren umorearen ezaugarri bat da hori. Broma handiena espekulazioak sinesten zituztenen aurkakoa da, espezializazio zientifikoa gero eta ohikoagoa zen garai batean; unibertsoaren jatorriari buruzko galderei erantzuna igarle batek, eliz gizon unibertsalista batek edo kazetari batek eman zitzakeela uste zutenentzat, nahiz eta lan hauek garaiko zientziarekin nolabaiteko harremana zuten. Herri zientzia, iradoki izan da, erantzun bat izan zen XIX mendeko pentsamendu zientifikoaren izaera ezkutuari (Daniels, 1968: 40-41); eta salbuespen gutxi batzuk badaude ere, orokorrean dibulgatzaileak ez ziren berritzaileak¹⁵. Hori hala izanik, Humboldti *Eurekak* egiten dion erreferentziaren garrantzitsua da gogorarazten digulako horrelako lan bat eskaintzen digunaren harrokeria. Nahiz Humboldtek jakinduria eman diezaiokeen lanari (Humboldt XIX mendeko Estatu Batuetan miretsia zen bere jakinduriagatik), unibertsoari buruzko teoria bat ezingo zen oinarrituta egon ezjakin batzuek estatubatuaren dolarrak biltzeko helburuarekin sortutako teorietan. Gauzak horrela, ez dago arrazoirik zalantzan jartzeko Poek interesez jarraitu zituela zientziaren berrikuntzak, baina, *Eureka* iruzur gisa irakurri behar da eta ez kosmologiari buruzko saiakera serio bezala. Poe paregabea izan zen argi utzi zuelako Dodsena bezalako irakurketa kosmologikoak erdipurdikoak baino ez zirela.

OHARRAK

15 | *The Scarlet Letteren* (1850), Hawthornek fenomeno astronomikoak interpretatzen zituen ezjakin bati egiten dio barre.

Bibliografia

- BENJAMIN, Walter (1968): "On Some Motifs in Baudelaire," Hannah Arendt (ed.), *Illuminations: Essays and Reflections*, New York, Schocken Books, 155-200.
- BEAVER, Harold (ed.) (1976): *The Science Fiction of Edgar Allan Poe*, London, Penguin.
- BOESE, Alex (2002): *The Museum of Hoaxes: A Collection of Pranks, Stunts, Deceptions, and Other Wonderful Stories Contrived for the Public from the Middle Ages to the New Millennium*, New York, E. P. Dutton.
- BURGOYNE, Daniel (2001): "Coleridge's 'Poetic Faith' and Poe's Scientific Hoax", *Romanticism on the Net*, 21, 17/04/2009, < <http://www.erudit.org/revue/ron/2001/v/n21/005960ar.html> >.
- CAMPBELL, Lewis; GARNETT, William (1882): *The Life of James Clerk Maxwell*, London, Macmillan.
- CANTOR, G. N. (1981): "The Theological Significance of Ethers", G. N. Cantor and M. J. S. Hodge (eds.), *Conceptions of Ether: Studies in the History of Ether Theories 1740-1900*, Cambridge, Cambridge University Press, 135-56.
- DANIELS, George (1968): *American Science in the Age of Jackson*, New York, Columbia University Press.
- DAVIS, Andrew Jackson (1852): *The Principles of Nature, Her Divine Revelations, and a Voice to Mankind*, 10th ed., New York, Lyon and Fishbough.
- (1871): *The Magic Staff: An Autobiography of Andrew Jackson Davis*, 9th ed., Boston, William White.
- DAYAN, Joan (1987): *Fables of Mind: An Inquiry into Poe's Fiction*, Oxford, Oxford University Press.
- DELEUZE, J. P. F. (1884): *Practical Instruction in Animal Magnetism*, New York, Fowler & Wells.
- DICK, Thomas (1846): *The Christian Philosopher; or, the Connection of Science and Philosophy with Religion*, 10th ed., 2 vols. in 1, Glasgow, William Collins.
- DODS, John Bouvee (1847): *Six Lectures on the Philosophy of Mesmerism, Delivered in the Marlboro' Chapel, Boston*, New York, Fowlers and Wells.
- (1853): *The Philosophy of Electrical Psychology in Twelve Lectures*, New York, Fowlers and Wells.
- ELMOR, Jonathan (1995): *Reading at the Social Limit: Affect, Mass Culture and Edgar Allan Poe*, Stanford, Stanford University Press.
- FALK, Doris V. (1969): "Poe and the Power of Animal Magnetism", *Publications of the Modern Language Association*, 84, 526-46.
- FROMM, Harold (1989): "Genius or Fudge? The Clouded Alembics of Magister Poe", *Hudson Review*, 52, 301-09.
- GOODMAN, Matthew (2008): *The Sun and the Moon: The Remarkable True Account of Hoaxers, Showmen, Dueling Journalists, and Lunar Man-Bats in Nineteenth-Century New York*, New York, Basic Books.
- HESSE, Mary B. (1964): "Francis Bacon", D. J. O'Connor (ed.), *A Critical History of Western Philosophy*, London, Collier-Macmillan, 141-52.
- HITCHCOCK, Edward (1854): *Religion of Geology and the Connected Sciences*, Boston, Phillips, Sampson and Co.
- HOLMAN, Harriet R. (1972): "Splitting Poe's 'Epicurean Atoms': Further Speculation on the Literary Satire of *Eureka*", *Poe Studies*, 5, no. 2, 33-37

- JACOBS, Robert (1969): *Poe: Journalist and Critic*, Baton Rouge, Louisiana State University Press.
- JAR'AB, Josef (2003): "Edgar Allan Poe's Literary Strivings: How to Sell Beauty When Truth is a Bore", *POEtic Effect and Cultural Discourses*, Hermann Josef Schnackertz (ed.), Heidelberg, Universitätsverlag Winter.
- LAURENS, Stéphane (2008): "Hidden Effects of Influence and Persuasion", *Diogenes*, 55, 9-21.
- LEHUU, Isabelle (2000): *Carnival on the Page: Popular Print Media in Antebellum America*, Chapel Hill, University of North Carolina Press.
- LEVINE, Stuart; LEVINE, Susan F. (eds.) (2004): *Eureka, by Edgar Allan Poe*, Urbana, University of Illinois Press.
- LIND, Sidney E. (1947): "Poe and Mesmerism", *Publications of the Modern Language Association*, 62, 1077-1094.
- MARTINEAU, Harriet (1838): *Retrospect of Western Travel*, 3 vols., London, Saunders and Otley.
- MILLS, Bruce Mills (2006): *Poe, Fuller, and the Mesmeric Arts: Transition States in the American Renaissance*, Columbia, University of Missouri Press.
- MILUTIS, Joe (2006): *Ether: The Nothing that Connects Everything*, Minneapolis, University of Minnesota Press.
- NORRIS, Christopher (1999): "Sexed Equations and Vexed Physicists: The 'Two Cultures' Revisited", *International Journal of Cultural Studies*, 2, 77-107.
- O'DONNELL, Charles (1962): "From Earth to Ether: Poe's Flight into Space", *Publications of the Modern Language Association*, 77, 85-91.
- OSTROM, John Ward, ed. (1948): *The Letters of Edgar Allan Poe*, 2 vols., Cambridge, MA, Harvard University Press.
- PICHANICK, Valerie Kossew (1980): *Harriet Martineau, The Woman and her Work, 1802-76*, Ann Arbor, University of Michigan Press.
- POE, Edgar Allan (1983): *Poetry and Tales*, New York, Viking Press, Library of America.
- (1984): *Essays and Reviews*, New York, Viking Press, Library of America.
- POLLIN, Burton R (2005): *Discoveries in Poe*, Notre Dame, IN, Notre Dame University Press, 1970.
- PORTERFIELD, Amanda (2005): *Healing in the History of Christianity*, Oxford, Oxford University Press.
- QUINN, Patrick F. (1963): "Poe's *Eureka* and Emerson's *Nature*", *Emerson Society Quarterly* 31, 4-7.
- ROURKE, Constance (1959): *American Humor: A Study of the National Character*, New York, Harcourt, Brace, Jovanovich.
- RUBIN, Joseph Jay; BROWN, Charles H. (eds.) (1950): *Walt Whitman of the New York Aurora: Editor at Twenty-Two; A Collection of Recently Discovered Writings*, State College, PA, Pennsylvania State University Press.
- SILVERMAN, Kenneth (1991): *Edgar A. Poe: Mournful and Never-Ending Remembrance*, New York, HarperCollins.
- SCHAEFFER, Charles W. (1971): "Poe's *Eureka*: The Macrocosmic Analogue", *The Journal of Aesthetics and Art Criticism*, 29, 353-365.
- SMITH, Gibson (1845): *Lectures on Clairmativeness, or Human Magnetism*, New York, Seasing and Prall.
- SOMERVILLE, Mary (1831): *Mechanism of the Heavens*, London, John Murray.

- TATAR, Maria M. (1978): *Spellbound: Studies on Mesmerism and Literature*, Princeton, Princeton University Press.
- TAVES, Ann (1999): *Fits, Trances, and Visions: Experiencing Religion and Explaining from Wesley to James*, Princeton, NJ, Princeton University Press.
- TAYLOR, Matthew A. (2007): "Edgar Allan Poe's (Meta)physics: A Pre-History of the Post-Human", *Nineteenth-Century Literature*, 62.
- THOMSON, G. R. (1973): *Poe's Fiction: Romantic Irony in the Gothic Tales*, Madison, University of Wisconsin Press.
- THOMSON, Thomas (1830): *An Outline of the Sciences of Heat and Electricity*, London, Baldwin & Cradock.
- TOWNSHEND, Chauncey Hare (1840): *Facts in Mesmerism, with Reasons for a Dispassionate Inquiry into It*, London, NP.
- VERNE, Jules (1978): *De la Terre à la Lune, suivi de Autour de la Lune*, Paris, Flammarion.
- WALKER, I. M. (ed.) (1986): *Edgar Allan Poe: The Critical Heritage*, London, Routledge and Kegan Paul.
- WALMESLEY, D. M. (1967): *Anton Mesmer*, London, Robert Hale.
- WALSH, Lynda (2006): *Sins against Science: The Scientific Media Hoaxes of Poe, Twain, and Others*, New York, SUNY Press.
- WEBB, Thomas William (1883): *Optics Without Mathematics*, London, SPCK.
- WHITTAKER, David J. (1991): *The Essential Orson Pratt*, Salt Lake City, UT, Signature Books, Classics in Mormon Thought.
- WHORTON, James C. (2004): *Nature Cures: The History of Alternative Medicine in America*, New York, Oxford University Press.
- WINTER, Alison (1998): *Mesmerized: Powers of Mind in Victorian Britain*, Chicago, University of Chicago Press.